

MEMORIA 2024

Eskerrik asko

*hain bihotz
handia izate*

SOLIDARIDAD / ELKARTAS



Caritas
Gipuzkoa

Muchas gracias

*por tener un
corazón tan grande*

Pertsonen bidelagun, errealitatea eraldatuz

Inpaktu-memoria helburu

Gotzain ordezkariaren mezua



*Argazkia: Berriketan

Ekainaren inguruan Corpus Christi jaia ospatzen dugu, gure eguneroko bizitzan eta gure Elizan zein gizartean egiten dugun karitatearen jardunean bidelagun dugun Haren presentzia gogora ekarriz.

Aurten, gainera, data honek 2025eko Jubileu Urtearekin bat egiten du, Francisco aita santuak '*Spes non confundit*' ("Itxaropenak ez du huts egiten", Errom 5,5) lelopean deitua. Jubileu hau "itxaropena biziberritzeko" aukera gisa aurkezten zaigu eta maitasuna —justiziazko, harrerazko eta duintasunezko ekintzetan bizi dena— Jainkoaren Erreinua iragartzen duen testigantza ikusgarri bihurtzeko gure bizitzan ('*Spes non confundit*', 2).

Caritas Gipuzkoaren memoria data honetan aurkezteak itxaropen hori berriro azaleratzera eta sustatzera gonbidatzen gaitu aurpegi zehatzen bitartez: 2024an pobretze, prekarietate edo bazterkeria egoeretan lagundu ditugun 14.442 pertsonen aurpegien bitartez, hain zuzen (5.320 familia). % 88 migratutako pertsonak dira; eta % 65, gainera, administrazio-egoera irregularrean daude.

Aurtengo memoriaren hitzaurre gisa, Abdoulaye Gueye, gure aholkulari juridiko baliotsu eta Caritas Gipuzkoako lankidea, gogoan izan nahi dugu, joan den apirilaren 27an zendu zena. Baita Francisco aita santua ere, egun batzuk lehenago Aitaren etxerantz abiatu zena. Eskaini zigun 12 urteko aitasantutza-aldia inspiratzailea eta pozgarria izan zen. Ondare gisa *Evangelii Gaudium*, *Laudato Si'* eta *Fratelli Tutti* bezalako testu esanguratsuak utzi dizkigu.

Pozez eta itxaropenez hartu dugu Leon XIV. aita santu berria, izena aukeratzerakoan bere aurrekoa izan zen Leon XIII.a gogora ekarri nahi izan duena, *Rerum Novarum* entziklikaren egilea. Entziklika horretan, Leon XIII.ak bere garaiko arazo soziorabialen "gauza berriak" aztertzen ditu, Elizaren Doktrina Sozialaren oinarriak ezarritik.

Gure gotzainek ‘Eraman oneko erkatzea’ pastoral gutunean dioten bezala, “Gure eginkizuna munduari testigantza baliotsua eskaintzea da. Ez konfrontazioa, baizik eta bizitza-koherentzia eta, honela, gizarte integratuago bat eraikitzen lagundu” (‘Eraman oneko erkatzea’, 34). Gako horretan ulertzen dugu Caritasen eguneroko lana: erantzun xume eta konprometitu gisa, partekatzen den emate arduratsu bezala.

Jubileu honek, zioen Francisco aita santuak, “pertsonen arteko loturekiko beharrezko konfiantza berreskuratzen lagundu nahi digu, pertsona ororen duintasunaren sustapenean eta sorkuntzarekiko errespetuan” (*‘Spes non confundit’*, 16). Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Gipuzkoan elkartasun sare hau posible egiten duten boluntario, profesional, emaile, parroketako komunitate, komunikabide eta administrazio publikoei. Keinu bakoitza, lotura bakoitza, eguneroko bidelaguntza bakoitza beste mundu bat –anaikorragoa, bidezkoagoa, gizatiarragoa– posible dela iragartzeko modua da. Elizbarruti bezala, umiltasunez ibiltzen den komunitatea izan nahi dugu, badakiena “konfiantza ez dela eskatzen edo inposatzen den zerbait: testigantza koherentearen bidez egunez egun irabazten den zerbait”, baizik (‘Eraman oneko erkatzea’, 123).

Memoria hau ez dadila datu bilketa soil bat izan, baizik eta sakontasun, fede eta itxaropen handiagorekin bizitzeko deia. Izan ere, Hebrearrei Gutunak gogorarazten digunez, “guk daukagun esperantza hori arimaren aingura bezalakoa da, sendoa eta irmoa” (Hb 6,18–19). Elkarrekin, Espirituaren arnasarekin eta sinodalitatearen dinamismopean ibiltzen direnen konfiantza partekatutik aurkezten dugu. Honela erakutsi nahi izan du gure gotzain Fernando Pradok ere: Caritas Gipuzkoako hainbat gun, zentro, programa eta fundaziotan izan duen presentzia hurbila guztiontzat izan baita, elkartasun, entzute eta adore seinale.

Patxi Aizpitarte,
Caritas Gipuzkoako gotzain-ordezkaria.



Aurkibidea:

Aurkibidea	4. orrialdea
Lagun hurkoarenganako maitasuna, ekintza ororen oinarri	5. orrialdea
Gizarte-testuinguru konplexuan bidelagun izan	6. orrialdea
Gizarte esku-hartze laguntzak eta esparruak	8. orrialdea
· Biziraupenerako eta diru-sarrera laguntzak	
· Etxebizitza eta bizitegi inklusioa	
· Babes sozioraberala	
· Eskola eta hezkuntza laguntza	
· Komunitatearen parte izan	
· Eskubideak eta babes juridikoa	
Nazioarteko lankidetzat	24. orrialdea
Kristau komunitatea, komunitate-animazioa eta sentsibilizazioa	26. orrialdea
Boluntarioratza	29. orrialdea
Komunikazioa eta eragin publikoa	31. orrialdea
Sare-lana eta enpresak	34. orrialdea
Kudeaketa, finantzaketa eta gardentasuna	37. orrialdea
Funtsezko datuak: Caritas Gipuzkoa 2024	38. orrialdea

Lagun hurkoarenganako maitasuna, ekintza ororen oinarri

“Zuek zarete munduarentzat gatza”. Mt 5, 13.

Caritasen ez dugu kausa batengatik laguntzen, ezta estrategiagatik ere: **maitasunean** sinesten dugulako egiten dugu. Ebanjeliotik jaiotzen den maitasuna da, pertsona bakoitzean Jesusen aurpegia ikusten duena, hunkitu, hurbildu eta inplikatzeko dena. Hurkoarekiko maitasun horrek zentzua ematen dio gure egiteari: **entzunez, bidegabekeriak salatuz, duintasuna defendatuz, hainbat boluntariok eta talde profesionalek haragiztatutako konpromisoa** da.

Francisco aita santuak *Fratelli tutti* entziklikan gogorarazten digunez, “karitate politikoa gizarte maitasunetik jaiotzen da”. Horregatik, gure gizarte-ekintza ezin da bereizi pizten duen fedetik. Ezkutatzeko ez den fedea da, bidegabekeriak onartzen ez dituenak, denon ongizatea bilatzen duena eta zauriak dauden lekuan, zubiak eraikitzen dituenak.

Memoria hau, beraz, ez da datu eta jardueren laburpen hutsa: laguntzen ditugun errealitateei begirada konprometitua da. Bere bidez, honako hauek bilatzen ditugu: erantzukidetasunez, egin den **lana zintzo azaltzea**; gure gizarte-ekintzak pertsonengan eta haien ingurunean duen **eragina** erakustea; babes-sisteman kronifikatzen ari diren **bazterkeria-seinaleak** ikusaraztea eta errealitate horiek **erronka partekatu** gisa gure gain hartzea: erantzun kolektibo, publiko, iraunkor eta justizia sozialean oinarritutakoa ematea izan behar baitu helmuga.

Era berean, memoria honek Caritas Gipuzkoako **2024–2027 Plan Estrategikoan** jasotako ekintza eta helburuei ere erantzuten die, hobetzeko gogoz eta zerbitzu bokazioz.

Gizarte-testuinguru konplexuan bidelagun izan

Laguntzen ditugun pertsonak

Caritas Gipuzkoaren jarduera oinarritzko uste sendo batetik abiatzen da: **pertsona orok du duintasunez bizitzeko eskubidea**, garatzeko, parte hartzeko eta komunitatean bizitzeko benetako aukerekin.

Ikuspegi honetatik abiatuta, gure lana laguntza material eta hezitzailetik baino askoz ere haratago doa: bizitza-ibilbide konplexuak entzutean, loturak berreraikitzean, eta pobrezia eta bazterketako egoera estrukturaleri erantzun eta eragin egitean datza. Modu honetan, Caritasen misioa sendotu egiten dugu: **pertsonen bidelagun izan eta errealitateak eraldatu.**

2024an,
Caritas Gipuzkoak
14.442 pertsona
artatu ditu, hots,
5.320 elkarbizitza-unitate

"Non da anaia?". Gn 4,9.



Lagundutako pertsonen eta familien profila ikuspegi integral batetik

Errealitatearen irakurketa integrala egiteak datu edo ezaugarri isolatuetatik harago begiratzea dakar. Bazterketa egoera zehatz bakoitzean **generoa, adina, jatorria, egoera administratiboa edo familia-egitura bezalako faktoreek bat egin eta elkarren eragina dutela** onartzea da. Ikuspegi honek gure begirada eta esku hartzeko gaitasuna hobetzen ditu, eta eragin soziala eta politikoa pobrezia- eta desberdintasunaren egiturazko arrazoiak eraldatzera bideratzeko balio du.

Abiapuntu honetatik, Caritas Gipuzkoak 2024an artatutako pertsonen profila aztertuko dugu. Guztira **14.442 pertsona**, 5.320 familietan banatuta:



% 48,6 gizon (7.022)
% 51,4 emakume (7.420)



Datu honek pobreak emakumeengan duen eragin berezia uzten du agerian. Oro har, oztopo handiagoak dituzte diru-sarrera egonkorrak eta enplegu duina lortzeko, haien autonomia ekonomikoa mugatuz eta pobrezia-aren feminizazioa indartuz.




Gizonak gehiago dira bizitegi bazterketan eta laguntza-sarerik gabeko migrazio prozesuetan: isolamendua eta bizi-prekarietatea areagotzen ditu.

<18 urte
% 22,6

>65 urte
% 2,4

45-65 urte
% 19,3



Erregularizazio administratiboko ekintzei, gizarteratze eta laneratzeari lehentasuna eman behar zaie, baita lotura komunitarioari eta bizi-autonomiaren garapenari ere.



Laguntza familia mailan ematearen garrantzia, eta haur eta gazteen eskubideak lehenesteara.




% 11,2 Espainiako jatorria (1.620)
% 88,8 migratzailea (12.822)



Bidelaguntzak harrera, errotze, erregularizazio eta parte-hartze sozialeko prozesuei lotuta egon behar du.




Egiturazko oztopoak kontuan hartu behar dira, migratzaileen eskubideak errespetatzea eragotzen dutenak.



Bakarrik bizi diren pertsona gehienak familia sarrerik gabeko bizitegi-bazterketa edo migrazio prozesuei lotuta daude.



Lagundutako familien erdiak baino gehiagok (% 51,3) seme-alabak dituzte bere ardurapean.



Muturreko ahultasun eta ikusezintasun juridikoaren menpe jartzen ditu.



Egiturazko bazterketa indartzen du: etxebizitza, enplegua edo osasuna eskuratzeko aukerak mugatzen ditu.



Familien % 18,4
+3 urte lagunduta



Gizarte bazterkeriako egoerak gizarte-egituraren parte direla erakusten du.



Kronikotasun honek babes sozialeko sistemaren mugak agerian uzten ditu.

Gizarte esku-hartze laguntzak eta esparruak



- **Biziraupenerako eta diru-sarrera laguntzak**
- **Etxebizitza eta bizitegi inklusioa**
- **Babes soziolaborala**
- **Eskola eta hezkuntza laguntza**
- **Komunitatearen parte izan**
- **Eskubideak eta babes juridikoa**

*"Eliza sinodala izan nahi dugu, aurrera doan Eliza, bakea bilatzen duena, karitatea bilatzen duena eta beti sufritzen dutenengandik hurbil egotea bilatzen duena".
Leon XIV. aita santua, izendatu ondorengo hitzak.*

Biziraupenerako eta diru-sarrera laguntzak

Biziraupena bermatzea, giza duintasunaren oinarri

Diru-sarrera nahikoak eta egonkorak izatea ezinbesteko baldintza da oinarrizko eskubideak eskuratzeko, hala nola, elikadura, etxebizitza, osasuna edo parte-hartze soziala. Pertsonak edo familiek bere bizi-beharrak asetzeko **gutxieneko baliabide ekonomikorik ez duten egoerei** erantzuten die laguntza esparru honek.

Gizarte bazterketaren dimentsio nagusi bati heltzen dio: **gabezia material iraunkorra**, prestazio publikoak eskuratzeko zailtasunek larriagotua, langabeziak, lan prekarioak, genero-desberdintasunak, migrazio-prozesuek edota oztopo administratiboek. Arlo honetan, Caritasek **duintasunez bizirautea** bermatzeko lan egiten du, premiazko beharrak arintzeaz gain, laguntza eta autonomia prozesuak indartzen dituzten laguntzen bidez.

Zertan datza bidelaguntza?



8.900

pertsona arlo
honetan lagunduta

1.107.048 €

biziraupenera bideratutako
zuzeneko diru-laguntzetan

**Laguntza hauek lehen harrerako parrokia sareak
eta Bidelagun programak kudeatzen dituzte.*



• Parrokietako Caritas-ak: gertutasuna eta hurbileko erantzuna

Caritasera hurbiltzen diren pertsona gehienek parrokien bidez egiten dute. 76 dira elizbarruti osoan, eta parrokietako Caritas hauek lehen harrera egiten dutenak dira: lasaitasunez **entzunez**, goxotasunez pertsonak **eusten**, egoera bakoitza baloratuz eta egunerokotasunak errazten duen gertutasunetik **bidelagun** izanez.

Lurralde osoan hedatua dagoen giza-sare hau **gure ekintzaren bihotz bizia** da. Bertan sortzen dira lehen harremanak eta hurbileko erantzunak. Bidelaguntza jaiotzen den lekuan, sarritan, itxaropena pizten da.

Atzemandako inpaktuak

- ✓ **Larrialdiko egoerak** arintzea baliabiderik gabeko/diru-sarrera nahikorik ez duten familietan.
- ✓ Gutxieneko **egonkortasun** baldintzak mantentzea.
- ✓ Autonomia prozesu zabalagoetarako **zubi** funtzioa.
- ✓ **Gizarteratze** prozesuei bide ematen dien ikuspegi integrala.

Etorkizuneko erronkak

- Gizarte-prestazioetarako sarbidea erraztea, oztopo administratiboak eta laguntza falta gaindituz.
- Bazterketa digitalari erantzutea alternatiba eskuragarriekin eta akonpainamendua eskainiz.
- DBEaren nahikotasuna indartzea, bizitza duina bermatu dezan.
- Prozesu konplexuen aurrean, Lanbiderekin eta Gizarte Zerbitzuekin koordinazioa hobetzea.

Etxebizitza eta bizitegi inklusioa

Etxebizitza eskubidea gizarteratzeko ardatz

Etxebizitza duina, egokia eta egonkorra izatea **oinarrizko eskubidea** da. Hura gabe —edo bizileku ez-seguruan, desegokian edo aldi baterako egoeran—, enplegua, hezkuntza edo osasuna eskuratzeko, edo sare komunitarion parte hartzeko aukerak larriki murrizten dira.

Laguntza esparru honek bazterkeriaren muturreko adierazpenetako bati heltzen dio. Caritasek kalean edo larrialdi-baliabideetan bizi diren pertsonak artatzen ditu, baita egoitza zentroetan edo tutoretzapeko etxebizitzetan bizi direnak, edo etxebizitza mantentzeko laguntza ekonomikoak behar dituztenak ere. Esku-hartzearen helburua **ingurune seguruak bermatzea da, bizi-hobekuntzako**, eskubideak berreskuratzeko eta loturak berreraikitze prozesuei ekin diezaieten.

Zertan datza bidelaguntza?



3.672

pertsona arlo
honetan lagunduta

1.022.731 €

etxebizitzara bideratutako
laguntza ekonomiko
zuzenetan

• Bidelagun programa (79 lagunek hartu dute parte)

Programa honek laguntza ekonomiko puntual edo iraunkorrak eskaintzen ditu bizitoki/etxebizitza bat eskuratu ahal izateko. Aldi berean, gizarte-bidelaguntza pertsonalizatua eskaintzen die, etxegabetasun kronikoko egoerei aurrea hartzeko eta bizi-hausturak saihesteko.

• **Eguneko zentroak, gaueko harrera: Hotzaldi eta Aterpe (138 pertsona)**

• **Egoitzak: Trintxer, Emeki eta Sorabilla (66 pertsona)**

Gune seguruak dira, etengabeko arreta eta harreman-laguntza eskaintzen dutenak. Kalean edo bazterketa larrian egon diren pertsonen zuzenduta daude. Kaleko ibilbideak, isolamendua edo gizarte narriadura dituzten pertsonengan ere erreparazio funtzioa betetzen dute, hezkuntza-laguntza eta harreman eta komunitate lotura aukerak eskainiz.

• **Etxebizitza programa, Zubia (56 pertsona lagunduta)**

• **Parrokia sarea (1.200 familia = 3.333 pertsona)**

Familia bizikidetzat hartuta, Caritasek ostatua eta diru-laguntzak eskaintzen dizkie etxebizitza mantendu ahal izateko eta bizileku-bazterketa larriko egoerak saihesteko. Laguntza horiek alokairuak, oinarritzko hornidurak, pilotutako zorrak edo etxeen egonkortasuna arriskuan jartzen duten gastuei aurre egiteko bideratuta daude; bereziki, hazkuntza eta prekarietate egoeran emakumeak buru dituzten familietan.

Atzemandako inpaktuak

- ✓ Muturreko egoerak ekiditu ditu, eta bizileku bazterketa **larriagotzea saihestu**.
- ✓ Gizarteratze-prozesuak hasteko **ingurune seguruak** sortu.
- ✓ Etxegabetzeak saihestu eta oinarritzko hornidurak bermatu. **Egoitza-egonkortasuna**.
- ✓ **Autonomia prozesuak eta beste esparru batzuekiko loturak** bideratu, besteak beste, enplegua, osasuna edo parte-hartze komunitario arloetan.

Etorkizuneko erronkak

- Alokairuko etxebizitza sozial duin eta eskuragarri parkea handituko duen politika publikoak eskatzea.
- Etxegabetasunaren prebentzioa egiturazko lehentasuna bihurtzea, laguntza-erantzunetatik harago.
- Erroldatzea bermatzea, eskubideak benetan eskuratu ahal izateko.
- Gizarte-erakundeen, zerbitzu publikoen eta tokiko komunitateen arteko lankidetzat indartzea.
- Erantzunak buru-osasuneko, isolamenduko edo kontsumoetako egoetara egokitzea, ikuspegi malgu eta integralarekin.

Babes sozioralorala

Lana diru-iturri, norberaren errealizazio eta parte hartzeko bide gisa



Enplegua eta prestakuntza ez dira diru-sarrerak lortzeko bitartekoak soilik: funtsezkoak dira **gizartearen aitortzarako, autonomiarako eta lanekoak bezalako eskubideak gauzatzeko**. Kualifikaziorako edo enplegu duinerako aukera errealik gabe, pertsona askok —bereziki migratutakoek— mugatuta ikusten dute bere bizi-proiektua.

Esparru honetan, egiturazko **langabeziarekin, lan-informaltasunarekin edo gaitasunak ez aitortzearekin** lotutako bazterketa-egoerak lantzen dira; genero, adin eta jatorri ezaugarriek dituzten ondorioak aintzat hartuta. Caritasek laguntza integrala sustatzen du, enplegarritasuna, autoestimua, motibazioa eta laguntza-sareak indartzen dituena.

Zertan datza bidelaguntza?



1.243

pertsona arlo
honetan lagunduta

140.803 €

arlo sozioralorari lotutako
beka eta laguntza
ekonomikoetan



- **Alfabetatzeko oinarrizko formakuntza: gaztelera klaseak Goierrin (48 pertsona) eta Bidelagunen (170 pertsona)**

Alfabetatze eta hizkuntza ikasteko prozesuak bultzatzen dituzte. Prestakuntza hau beste oinarrizko eskubide batzuk eskuratzeko atea da.



- **Ahalduntze eta kualifikazio ekimenak: Miriam, Altza Baratz eta Lazkao Baratz**

Miriam programak 690 emakumeri lagundu die, lanerako gaitasunen pertsonalen eta sozialen garapena sustatuz, ahalduntzean zentratutako metodologia batetik. Altza Baratz (30 pertsona) eta Lazkao Baratz (23 pertsona) programek baratzeko lanean trebatzeko balio dute, ikuspegi praktiko eta komunitario batetik, jasangarritasuna eta talde-lana ardatz hartuta.

- **Ibilbide pertsonalizatuak laguntza ekonomikoarekin: Lamorus**

29 lagunek hartu dute parte Lamorus tailer okupazionalen. Tailer honek banakako esku-hartzea eta prestakuntza prozesuetarako edo enplegu bilaketa aktiborako diru-laguntzak (bekak) uztartzen ditu. Esku-hartzea parte-hartzaileen bizi erritmoei eta beharretara egokitzen da.



- **Lanpostu bat eskuratu eta zuzeneko lan aukerak (24 pertsona lagunduta)**

Caritas Gipuzkoak 10 pertsonen laneratzean lagundu du bere zerbitzu eta programen bidez. Horrez gain, Goierrin, 14 pertsonak izan dituzte enplegu babestuko aukerak, edo elkarlanean dihardugun tokiko enpresetan. Esperientzia hauek lan merkatu arrunterako zubi dira.

Atzemandako inpaktuak

- ✓ **Ahalduntze eta motibazioa**, eta itxaropen pertsonalak eta profesionalak berreskuratzea.
- ✓ **Gaitasun pertsonal**, sozialen eta prestakuntzaren hobekuntza.
- ✓ Laguntza ekonomikoek prestakuntza **ibilbideak eusten** dituzte eta amore emateak sahiestu.
- ✓ **Lana lortzea** erraztu, batez ere bazterkeria egoeran dauden emakume migratzaileen kasuan.

Etorkizuneko erronkak

- Emakume migratzaileei eta 45 urtetik gorakoei zuzendutako alfabetatze, prestakuntza eta enplegarritasun politika publikoak indartzea.
- Ikaskuntza informalak baliozkotzea eta aitortzea.
- Egoera juridiko-administratibo irregularrean dauden pertsonak enplegu-politika aktiboetatik kanpo uzten dituzten lege-oztopoak ezabatzea.



Eskola eta hezkuntza laguntza

Hezkuntza, pobrezia-aren oinordekotza hausteko apustua

Hezkuntza oinarritzko eskubidea da, eta gizarteratzeko funtsezko faktorea. Ezagutzak eta aukerak eskaintzeaz gain, **autoestimua, kide izatearen zentzua eta etorkizunerako proiektzioa indartzen ditu**, bereziki haurtzaroan eta nerabe-zaroan.

Hala ere, haur eta nerabe askok oztopoak izaten dituzte hezkuntza ibilbidean euren familiek bizi dituzten prekarietate egoerengatik, etxe-koek eskola-laguntzarik ezin dietelako eskaini, hezkuntza oztopoengatik edo hezkuntza-sistemaren funtzionamendua ez ezagutzeagatik.

Caritas Gipuzkoak adin txikikoei eta hezkuntza-egoera ahulean dauden familiei laguntzen die, ikaskuntzak indartzen dituzten, eskola-integrazioa bultzatzen duten eta familia eta eskolaren arteko lotura indartzen duten programen bidez.

118 haurrek
hartu dute parte
eskola eta hezkuntza
laguntza programetan



= 83 familia



Lan eremu honek familia mailako eragina du: adingabe batekin egiten den esku-hartze bakoitzak bere familia inguruneari laguntzea, orientatzea eta indartzea dakar, prozesuaren parte bilakatuz.

Zertan datza bidelaguntza?

Caritas Gipuzkoaren hezkuntza laguntzak integrala izatea du helburu: eskola laguntzak **eskola-familia lotura indartzea eta garapen pertsonala bultzatzea uztartzen** ditu. Kontua ez da etxeko lanak egitea bakarrik: konfiantza, motibazio eta hazkunde eremuak sortzen dira, ikaskuntzarako ekitate baldintzak bultzatuz.

Hezkuntza-programak ikastetxeekin, gizarte-zerbitzuekin eta komunitate erakundeekin **koordinazioan** garatzen dira, laguntza sare iraunkorrak sortzeko helburuarekin.



• **Bultzada (Irun eta Donostia)**

Eskola-errefortzurako guneak, ikasteko ohiturak, laguntza emozionala eta familien dinamizazioa, hezkuntzaren ikuspegitik. 82 haurrek hartu dute parte (59 familia guztira).

• **Ikasi Akademia**

Esku-hartze pertsonalizatuagoa, hizkuntza ikaskuntzan, hezkuntza orientazioan eta eskola-sistemara egokitzean oinarritua. 10 neska-mutilek hartu dute parte (7 familia).

• **Kumme (Lasarte-Oria)**

Familiekin lotura handia duen gune komunitarioa, gizarte eta hezkuntza laguntza eskaintzen du, batez ere, harreman edo kultura ahultasuneko egoeran dauden adingabeei. 36 neska-mutilek hartu dute parte (24 familia).

Atzemandako inpaktuak

- ✓ **Eskola-gaitasunak** eta ikaskuntzarekiko lotura indartzea, bereziki ahultasun testuinguruetan.
- ✓ Haurren **ongizate emozionala** hobetzea, harremanetarako espazio seguruak sortuz.
- ✓ **Familien inplikazioa** areagotu, hezkuntza prozesuetan parte-hartuz eta erantzunkidetasuna indartuz.
- ✓ Beste laguntza komunitario eta babes zerbitzuak eskuratzeko **zubi** izan.



Etorkizuneko erronkak

- Hezkuntza indartzeko politika publikoak bultzatzea, eskubideen ikuspegitik, berdintasunean, kulturartekotasunean eta baztertuta dauden adingabeei laguntzean oinarrituta.
- Ikastetxeekiko koordinazioa indartzea, arrisku-egoerak garaiz antzemateko.
- Familiek esku hartzeko guneak zabaltzea, parte-hartze eta erantzukizun partekatuaaren logika oinarri hartuta.
- Arrakala digitalak, familien kontziliaziorako zailtasunek edo baliabide espezializatueterako sarbide ezak haur batzuen eskola-errendimendua ez mugatzea aldarrikatzea.

Komunitatearen parte izan

Sozializazioa, funtsezkoa gizakiontzat

Gizartean eta komunitatean parte hartzea inklusioaren funtsezko alderdia da. Oinarrizko eskubideak eskuratzeaz harago, komunitate baten parte aktibo izateak —espazioak, esperientziak eta loturak partekatzeak— pertsona askori **autoestimua berreskuratzeko, isolamendua gainditzeko eta aitortuak sentitzeko** aukera ematen die. Esparru honek harreman-bazterketa, estigmatizazio eta bakardadeko egoerei erantzutea bilatzen du, bizikidetza kohesionatuagoa eta herritartasun irekiagoa eta inklusiboagoa sustatuz.

Jarduera eremu honek kultura, kirol, jai eta aldarrikapen jarduerak hartzen ditu barne, eta jarduera horiek Caritaseko zentroetatik bertatik eta inguruko eragileekin lankidetzan bultzatzen dira. Guztiek helburu bera dute: logika inklusibo eta ireki batetik abiatuta, **elkarbizitzarako, gizarte loturarako eta herritartasuna gauzatzeko aukerak** sortzea.

Zertan datza bidelaguntza?

320 pertsonek,
programa desberdinetakoak,
parte hartu dute
jarduera hauetan

Kultura eta aisialdia

- **Museoak**, bisitak eta tailerrak: Aquarium, Chillida-Leku, Rezola, Itsas museoa, Eureka, Albaola, San Telmo, Balenciaga...
- **Zinema eta antzerkia**: +55 programa, Zinemaldia, tokiko zinemak...
- **Txangoak**: Santa Clara, Hondarribia, Igeldo, Arantzazu...
- **Kontzertuak**: Kursaal, Gabonetako kontzertua...

Komunitate-sareak

- **Gertu Kultura:** kolektibo ahulenei kulturarako sarbidea errazten dien programa honekin lankidetzatza.
- **Beste batzuk:** Amara Berri auzoko elkartearen eguna, Erlauntza sarea, Peñafloresta institutuarekin lankidetzatza, auzoetan irtenaldiak...

Kirola eta jarduera fisikoa



- **Herri lasterketak:** Korrika, Clásica-San Sebastián, San Silvestre...
- **Jardunaldiak:** surf, eski, irteerak mendira...
- **Emakumeen futbol txapelketa,** Trapezistak-ek antolatuta.

Jaiak, ospakizunak eta taldea indartzeko jarduerak

- **Auzoetako jaiak:** Herrera, Karmengo jaiak-Trintxerpe (tortila lehiaketa), San Juan sua, Santo Tomaseko azoka, Itsas festibala...
- **Lehiaketak,** gastronomikoak, herri-zinema...
- **Irteerak,** sanferminetara txangoa...

Gizarte parte-hartzea eta talde ekimenak

- **Aldarrikapen jardunaldiak:** M8, Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna, Isiltasun Zirkuluak, Arrazakeriaren kontrako martxa...
- **Komunitate ekimenak:** 'Contadoras' emakume taldea, Sorburuk bultzatutakoa...



Eskubideak eta babes juridikoa

Eskubideak aukera-berdintasunerako zubi gisa ulertzea

Akonpainamendu juridikoak **oinarrizko eskubideetarako sarbide eraginkorra bermatzen** die administrazio-egoera irregularreko, lege babesik gabeko egoeretan dauden edo arau-sistema ezagutzen ez duten pertsonen.

Arlo honek informazioa, orientazioa eta laguntza eskaintzen du atzerriartasun, errotze, nazioarteko babes, erroldatze, familia berrelkartzearen edo eskubideen urraketa bezalako gaitan eskubideak gauzatzeko. **Akonpainamendu tekniko, pedagogiko eta humanizatzailea** da, legea duintasunaren eta justizia sozialaren zerbitzura jartzen duena.

Zertan datza bidelaguntza?

1.810 pertsonen
jaso dute aholku eta
laguntza juridikoa



Burututako ekintzak

- **Banakako arreta** gai hauetan: atzerritartasuna, gizarte eta lan errotzea, nazioarteko babesak, familia berrelkartzea, erroldatzea, indarkeria, etxebizitza, osasuna, enplegua lortzeko zailtasunak.
- **Izapide juridikoak eta administratiboak** egiten laguntzea.
- Zerbitzu publikoekin, baliabide espezializatuekin, defentsa-erakundeekin eta erakunde juridikoekin **koordinazioa**.
- Eskubideak ezagutzeko eta modu aktiboan lortzeko **lan pedagogikoa**.

Atzemandako inpaktuak

- ✓ Oinarrizko **eskubideak eta administrazio erregularizazio prozesuei sarbidea** erraztea.
- ✓ **Autonomia juridikoa eta lege-egonkortasuna** indartzea.



Etorkizuneko erronkak

- Administrazioarekin izapideak egiteko zailtasunak nabarmentzea, batez ere administrazio-erregularizazioarekin eta nazioarteko babesarekin zerikusia dutenak.
- Erroldatzerakoan oztopoak izaten jarraitzeari, errotze-egiaztapenari edo dokumentu bidezko aitortapenari lotutako oztopoak salatzea.
- Akonpainamendu juridiko-soziala balioan jartzea, inklusioaren eta herritartasun aktiboaren funtsezko alderdi gisa.

Nazioarteko lankidetza

"Gehiegizkoa litzateke nazioarteko lankidetzaren hizkuntzan maitasunaren kategoria sartzea, doakotasuna, tratu berdintasuna, elkartasuna, dohainaren kultura, anaitasuna eta errukia bezala ulertuta?". Francisco aita santua, 2017ko Elikaduraren Nazioarteko Eguna.



Nazioarteko lankidetza Caritas Gipuzkoak justizia globalarekin duen konpromisoaren adierazpenik sakonenetarikoa da. Herrien arteko elkartasunetik, Hegoalde Globaleko **pertsona pobretuen aldeko hautu etiko eta ebanjelikoa** berresten du, eskubideen subjektu eta eraldaketaren protagonista gisa aitortuz. Ezberdintasunak, indarkeriak eta krisi klimatikoak zeharkatutako mundu baten aurrean, lankidetza honek lotura iraunkorren eta duintasunaren eraikuntza partekatuaren alde egiten du.

Caritas Españolaren Anaitasunezko Lankidetza Ereduari jarraituz, gure ekintza eliza anai-arreben arteko elkarrekikotasun harremanetan oinarritzen da, **garapen integraleko prozesuak sustatuz**, duintasunetik eta tokiko protagonismotik. Begirada honek logika asistentziala alde batera uzten du, anaitasun, justizia eta esperantza partekatuko lotura iraunkorrak eraikitzeko.



32.000 onuradun zuzen
baino gehiago



15 proiektu
Afrikan, Asian, Latinoamerikan eta European



584.945 €-ko
inbertsioa guztira

Ekintza esparruak

• **Genero-ekitatea eta emakumeen ahalduntzea**

Inbertsioa: 200.000 € | Onuradunak: 2.075

Puerto Ricon, Dominikar Errepublikan, Guatemalan, Kolonbian eta Filipinetan (Oblatas), Kenyan (Quebec-eko misiolariak) eta Ekuadorren emakumeekin egindako proiektuei laguntza, indarkeriaren aurkako eta enplegu duina eta lidergo komunitarioa sustatzeko babes-sareak sustatuz.

• **Elikagaien segurtasuna**

Inbertsioa: 331.945 € | Onuradunak: 27.976

Bolivian, Eritrean eta Bangladeshen garatutako proiektuak, klima-aldaketaen aurrean elikagaien segurtasuna, jasangarritasuna eta erresilientzia komunitarioa hobetzeko.

• **Haurren hezkuntza eta ezagutzarako sarbidea**

Inbertsioa: 43.000 € | Onuradunak: 708

Beninen, Ekuadorren eta Bolivian hezkuntza guneak indartzea, oinarrizko materialekin, azpiegitura egokiekin eta bazterkeria egoeran dauden haurrei lagunduz.

• **Erakundeen indartzea**

Inbertsioa: 10.000 € | Onuradunak: 1.500

Caritas Finlandiari laguntza ematea pertsona errefuxiatu eta migratzaileak artatzeko ahalmena areagotzeko, Europako krisi humanitarioaren larritzeari erantzunez.



Atzemandako inpaktuak

- ✓ **Anaitasunezko aliantza egonkorrak** sendotzea, tokiko komunitateen autonomia indartzeko.
- ✓ **Ahalduntze jasangarria**, bereziki, emakume, landa-familia eta komunitate migratzaileengan.
- ✓ Hainbat herrialdetako Caritasekin eta tokiko erakunde erlijiosoekin **sare-lana** sustatzea.

Kristau komunitatea, komunitate-animazioa eta sentsibilizazioa

*"Aldirietara etengabeko irtenaldia".
Evangeli Gaudium, Francisco aita santua.*



Komunitate-animazioa Caritas Gipuzkoak parroketako komunitateen bizitzarekin duen konpromisoaren adierazpenik esanguratsuenetakoa da. Abiapuntu honetatik, hezkuntza, ospakizun eta parte-hartze prozesuak sustatzen ditu, **komunitate loturak sendotzen** dituztenak eta gure parrokiak gune abegitsuago, erantzunkide eta irekiagoak bihurtzen dituztenak. Pobrezia edo bazterketa pairatzen dutenak samurtasunez hartzen dituzten komunitate biziak, Ebanjelioaren lekukotasun eta itzaropenetik gizartearekin hitz egiten dutenak.

Sentsibilizazioa gure misioaren ardatz giltzarria da: begirada ebanjeliko batetik, **giza sufrimendua ikusgarri egitea**, bere jatorri estrukturalak salatzea eta gizarteari justiziaz eta zaintzaz erantzuteko dei egitea. Bestea artatu, sendatzen, ahalduntzen eta aliantzak ehuntzen dituen pedagogia samariarra dugu oinarri, mundu justuago bat eraikitzeko helburuarekin.



277 ikaslek
hartu dute parte
sentsibilizazio saioetan



Burututako jarduerak

Topaguneak eta komunitate bizitza

Haurrekin eta komunitatearekin jarduerak

- Elizbarrutiko hiri-udalekuak: Caritaseko boluntarioek egoera ahulean dauden haurrei zuzendutako aisialdi hezitzaileko proposamen honetan parte hartzen dute.
- Haurtzaro misiolaria: Zarautzen egindako tailer parte-hartzaileak.



Gizarte dimentsioa duten eliza ospakizunak

- Gabonak: Juanjo Elezkano kantautorearekin kontzertu-otoitza Aldapeta María ikastetxean.
- Pazkoa: BeTel taldearen kontzertu-otoitza Lasarte-Orian. Bizitza eta berpizkunde mezua partekatzen dugun jai eta berrikuntza gunea.

Sentsibilizazioa gune publikoetan

- V Opil Solidarioa: ekitaldi ludikoa, hezitzailea eta komunitarioa.
- Taupagunea-Donostia: justizia sozialaren ikuspegitik, entzuteko, salatzeko eta proposamenak egiteko gunea, tailerren eta materialen bidez Caritasek laguntzen dituen errealitateak ikusaraziz.
- Taupagunea-Oñati: Corpus egunari lotutako tokiko bertsioa. Ikastetxeekin egindako dinamiken eta gizarte-eragileekin eta komunitatearekin izandako elkarrizketaren bidez, sentsibilizazio komunitarioaren dimentsioa indartu zuen.

Sentsibilizazioa ikastetxeetan eta erakundeetan

Dibulgazio-hitzaldiak

- Gizarte-bazterketari, emakumea eta bazterketari, etxebizitzari edo ekonomia solidarioari buruzko hitzaldiak eman zaizkie DBH eta Batxilergoko ikasleei, baita elkarte eta erakundeei ere.

Tailerrak

- Erronkak eta dinamikak, ikasleen artean gogoeta sustatzeko eta ondorioak atera ditzaten.

Proiektu sozialetara bisitak

- Hezkuntza-bisitak Hotzaldi, Aterpe, Lamorus, Trintxer-Emeki edo Lazkaoko baratze edo Altza Baratzara.

Beste jarduera batzuk

- Lankidetzak jardunaldiak Deustuko Kirol fakultatearekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) eta Salamancako Unibertsitatearekin.

Sentsibilizazio-ekintzak egin eta hitzaldiak eskaini ditugu Toki Alai, Pio Baroja, Hirubide (Irun), Antigua-Luberri, Oianguren BHI, La Asunción, Ama Guadalupekoa, La Salle Legazpi, La Salle Andoain, La Salle Donostia, Larramendi, Jesuitak Donostia edo Usandizaga ikastetxeetan, besteak beste.



Atzemandako inpaktuak

- ✓ Pobrezia eta bazterkeria egoeren aurrean **gogoeta eta sentsibilizaziorako guneak** sortzea.
- ✓ Parrokiekin, auzoekin, ikastetxeekin eta tokiko komunitateekin **lotura** indartzea.
- ✓ **Txikitatik** elkartasuna, enpatia eta konpromisoa sustatzea.
- ✓ Caritasen jardueran **eragile berriak** inplikatzeko.

Boluntariotza

Boluntariotza Caritas Gipuzkoaren **funtsezko zutabeetako bat** da. Ez soilik inplikaturako pertsona kopuruagatik, baizik eta eguneroko keinu bakoitzean elkartasuna eta hurkoarenganako maitasuna gorpuzten duten moduagatik.

Bere lan konprometitu eta iraunkorra Elizaren presentzia da munduan. Boluntarioek Caritasen jarduera osoan parte hartzen dute, konpromiso sozialaren izaera integrala eta gizatiarra indartuz. Beraz, **eusten eta eraldatzen duen presentzia konprometitua** dira.

*"Zoaz eta egin zuk gauza bera".
Lk 10, 37.*



Boluntarioen ekintza esparruak



- **Lehen harrera parroketako Caritasetan:** Arretaz entzuten, balorazio partekatua eta laguntza zuzena eskaintzen duten pertsonak.
- **Hezkuntza laguntza:** Haur eta familiei bidelaguntza eta eskola laguntza eskaintzen dizkiete, konfiantza eremuak sortuz.
- **Etxebizitza eta gizarteratzea:** Ibilbide pertsonalizatuetan bidelaguntza, eta gizarteratzearen alde egiten duten aisialdi ekintzetan.
- **Komunitatean eta arlo soziolaboralean esku-hartzea:** Prestakuntza tailerretan parte hartzen dute, okupazio ibilbideetan eta komunitate ekintzetan.
- **Antolakuntza eta estrategian laguntza:** Administrazio lanak, logistika, lan teknikoak eta harremanekoak, erakundea indartzen dutenak.

Bidelagunen bidelagun izan

Boluntarioekin dugun harremana **ibilbide integral** baten bidez zaintzen da: hitzaldi informatibo bat, hasierako elkarrizketa, esparru egokienera bideratzea, 'Hasiberriak' prestakuntza eta lantaldeetan etengabeko bidelaguntza eskainiz. Prozesu honek **konpromisoaren jasagarritasuna bultzatu** nahi du Caritasen misioaren barruan.

Honetarako, hainbat gune ditugu, besteak beste: **mahai teknikoa**, boluntariotzaren ardura duten profesionalek osatua, antolakuntzaren eta estrategiaren hobekuntzak bultzatzen dituena; **erreferenteen mahaia**, boluntarioek osatua eta erakundearen bizitzan boluntarioen presentzia eta parte-hartzea sustatzen duena; **ZAINDU taldea**, boluntario berrien zaintza eta entzute aktiboa ardatz dituena, harrera beroa eta konprometitua sustatuz.



866 boluntario
aktibo

(% 65 emakumeak - % 35 gizonak)



50 zerbitzu,
zentro edo programetan
bidelagun



31 informazio-hitzaldi
183 partehartzaile



Boluntariotzaren gala
Boluntarioen
Nazioarteko Eguna
Abenduak 5

Atzemandako inpaktuak

- ✓ Profil desberdinetako **boluntario berriak hurbiltzea**, Caritasen *izateko* eta *egiteko* era indartuz.
- ✓ **Antolaketa sare erantzunkidea** sendotzea, boluntarioen parte-hartzea bultzatzeko.
- ✓ Boluntarioak **eraldaketa sozialaren eragile giltzarritzat** aitortzea.

Komunikazioa eta eragin publikoa

"Kriseilua ez da ontzipean jartzeko pizten, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egiteko". Mt 5, 15.

Caritas Gipuzkoaren komunikazio instituzionala tresna estrategiko, ebanjelizatzaile eta eraldatzailea da. Ez da informatzera mugatzen: lagundutako pertsonen **ikusgarritasuna ematea** bilatzen du, **elkartasun eta justizia kultura** sortzea, eta imajinario sozialak eta politika publikoak **eraldatzen** laguntzea.

2024an, komunikazioaren barne-koherentzia sendotu egin da, eta **lagundutako pertsonen eta boluntarioen protagonismo handiagoa eman** nahi izan zaie, haien errealitateen eta istorioen bozeramaile eginez. Era berean, mezuek gizartean duten eragina areagotzea bilatu da, hedabide sozial berrietara egokituz.

Lan esparruak

Kanpaina instituzionalak: Ikusezina dena ikusarazi

Irailetik aurrera, **etxebizitza duina izateko eskubidea** ardatz duen kanpaina plana jarri da abian. Ekimen hau hiru ataletan oinarritutako egitura batetik garatu da: **testigantza** erreal, mezuaren **fundamentazioa** eta ekintza **proposamena**:

- Garizuma 2024: *'Ekin, partekatu zure onena'.*
- Corpus 2024: *'Keinu txikiek ere komunitatea egiten dute'.*
- 2024ko iraila: *'Etxebizitza eskubidea pertsona guztiontzako'.*
- Gabonak 2024: *'Familia guztiontzako aterpea'.*



Kanalak eta komunikabideak: Mezua zabaldu

Kanal anitzeko komunikazioa indartu da, webgunearen erabilgarritasuna hobetuz eta zuzeneko informazio bideak landuz.

- Webgunearen **home-a eta sentsibilizazio atala berritu** dira. **65 albiste** argitaratu dira.
- **Sare sozialen** eguneratzea: Facebook, Instagram, X, YouTube.
- MailChimp bidez **105 mezu elektroniko** eta WhatsApp instituzional bidez **158 mezu** bidalita.
- **Hedabideetan, 40 agerraldi** baino gehiago, eta **4 prentsaurreko**: Opil Solidarioa, Etxerik Gabeko Pertsonen eguna, 2023ko memoriaren aurkezpena eta Taupagunea-Oñati.
- **7 iritzi-artikulu** argitaratu dira El Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Berria, Naiz, SER Euskadi eta eldiario.es-en, boluntarioen parte-hartzearekin.



46 agerraldi
komunikabideetan



15 lagundutako pertsona eta boluntarioen
parte-hartzea, gutxienez.



Edukien ekoizpena: Eman ahotsa aurpegi eta mezuarekin

20 bideo baino gehiago sortu dira, hainbat gairi buruz:

- Liturgia kanpainak: Garizuma, Pazkoa, Abendualdia eta Gabonak.
- Nazioarteko egunak: Emakumeak, Boluntariotza, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Desagerraraztea...
- Proiektu espezifikokoak: 'Emakume haiek gu gara', osasun mentalari buruzkoa (Gizaiderekin lankidetzan).
- Laburpenak (Opil Solidarioa, Boluntariotza Gala...) eta sare sozialetarako bideo laburrak.

Larrialdi-kanpainak: Ahotsa goratuz, behar gaituzten pertsonen alde inplikatzuz

- Lur Santua
- DANA larrialdia

Aliantzak eta elkarlanak: Sentsibilizatzea guztion lana da

- Bertako merkataritza eta enpresak: Azpeitiko eta Lasarte-Oriako merkatarikari elkarteak, Alzola Basque Water...
- Hezkuntza eta gazteria: Ayete Ikastetxe Nagusia (kontzertu solidarioa), Milbby denda ('Motxila Solidarioak')...
- Elizbarrutia eta Cáritas Española: aldizkako argitalpenak, 'X bikoitza' kanpaina, 'Actualidad Diocesana'-n artikulatuak...

Atzemandako inpaktuak

- ✓ Lagundutako pertsonen **ahalduntzea**, haien errealitateen bozeramaile egitean.
- ✓ Meziek **oihartzun handiagoa lortzea**, kezka sozialeko gaiak lantzerakoan. Hala nola, etxebizitza eskubidea edo hotzari aurre egiteko jarduera-protokoloak.
- ✓ Komunikabideek gizarte-errealitateekiko duten **sentsibilizazioa handitzea**, Trintxer-Emeki zentroetara edo Altza Baratza bezalako programetara hurbilduz.
- ✓ **Gizarte mobilizazioa** larrialdi egoeren aurrean.



Sare-lana eta enpresak

"Beti zabaldu behar da begirada, denoi mesede egingo digun ondasun handiago bat ezagutzeko". Evangelii Gaudium, Francisco aita santua.

Sare-lana



Sarean lan egitea Caritasen nortasunaren eta egiteko moduaren berezko parte da. Ez dugu gure ekintza erantzun isolatu gisa ulertzen, baizik eta justizia sozialarekin konprometitutako beste erakunde, instituzio eta pertsonekin batera **ehundutako konpromiso partekatu** baten zati gisa.

Honengatik, Caritas Gipuzkoak Hirugarren Sektoreko sareetan, eliza-plataformetan eta erakundeen arteko lankidetzaren guneetan aktiboki hartzen du parte. **Komunitate zentzutik**, elkarri laguntzetik eta sufrimenduaren eta bazterketaren aurrean erantzunkidetasunetik **sortzen den elkartasunean sinesten dugulako**. Elkarrekin bakarrik -gizarte zibila, Eliza eta administrazio publikoa- eman ditzakegu erantzun eraginkor, iraunkor eta eraldatzaileak.

Caritas Gipuzkoak **50 lan-mahaietan** hartu du parte, publikoak, Hirugarren Sektorekoak, foro komunitarioak eta gune konfederalak.

Inplikazio **iraunkor, estrategiko eta inpaktu handikoa** izan da. Harreman sare honek Caritasek elkarriketarekin, erantzukidetasunarekin eta guztien onarekin duen konpromisoa indartzen du.

Kanpo mahaiak
% 74

Barne mahaiak
% 26

- Mahai komunitarioak, plataforma sozialak, foro instituzionalak...
- Caritas Euskadi eta Cáritas Españolako sareak

Bihotzdun enpresak

Enpresa munduarekiko lankidetza gizarte-justiziarekin partekatutako erantzukidetasunaren logikatik sustatutako estrategia instituzionala da. Caritas Gipuzkoak **inguruneak eraldatzera, aukerak irekitzera eta gizarteratzearekin eta laneratzearekin aktiboki konprometitzera bideratutako aliantza** gisa ikusten du enpresekin duen harremana.



bihotzdun enpresak
Caritas Gipuzkoa

‘Bihotzdun enpresak’ izenpean, Caritasek lurraldeko enpresekin elkarrizketa sustatzen du, harreman iraunkorrak sortu eta **jarduera ekonomikoa, konpromiso etikoa eta eskubideetarako sarbidea bateratzen dituzten ekimenak** bultzatu egiten ditu. Enpresa sarearekiko aliantzak giza aurpegia duen ekonomia bat eraikitzeko bidea izan nahi du, bidezkoagoa, integratzaileagoa eta guztien ongira bideratua.



15 lankidetza hitzarmen indarrean

- Enplegurako sarbidea
- Produktu/zebitzu eskaintza
- Kanpainak abian jarri
- Dohaintza aldizkakoak/
periodikoak



23 enpresekin harremanetan jarrita

- Industria
- Elikadura
- Banaketa
- Hotelak...

Burututako ekintzak

Empresen jardunaldia, apirilak 25
Gipuzkoako Bazkundearekin antolatuta, laneratze orduan dauden aukera eta zailtasunak aztertutako zituen.

Enpresekin gosaria, azaroak 25
Elkar entzun, esperientziak eta erronkak partekatzeko eta elkarlanerako aukerak aztertze harreman gunea.

Atzemandako inpaktuak

- ✓ Bazterkeriaren eta pobreziaren aurkako borrokan kanpoko **lankidetza indartzea**.
- ✓ Beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea, **herritarren parte-hartzea** sustatzeko.
- ✓ **Eragin** komunitarioa eta politikoa handitzea.
- ✓ Funtsezko arloetan **laguntza hobetzea**, hala nola, migrazio prozesuetan, etxebizitzan, enpleguan eta gizarteratzean.
- ✓ **Konfiantzazko harremanak** sendotzea hainbat sektoretako enprekin.
- ✓ **Enpresen parte-hartze aktiboa** lortu laneratzeko prozesuetan eta gizarte kanpainenetan.
- ✓ Gizarte-bazterketaren inguruan enpresek duten konpromisoa **ikusgarriagoa egitea**.
- ✓ **Lankidetza etikoan** oinarritutako harreman-eredua artikulatzea, ez asistentziala, Caritasen Gizarte Ekintzaren Ereduarekin bat datorrena.




Kudeaketa, finantzaketa eta gardentasuna

Caritas Gipuzkoaren kudeaketa ekonomikoa erantzukizun partekatutik, austeritatetik eta gardentasunetik abiatuta egituratzen da, **baliabideen erabilera etiko eta eraginkorra** helburu duelarik. Kontuak emateko konpromisoa eskakizun teknikoa da, baina baita elkarrekiko konfiantzaren, justiziaren eta guztien ongiaren adierazpena ere.

Kudeaketa eta administrazio taldeak arauak betetzen direla bermatzen du, baliabideak optimizatzen direla eta proiektu guztien jasangarritasuna zaintzen dute. Caritas Gipuzkoaren kudeaketa **finantza-independentiaren, barne kontrol zorrotzaren eta kanpo ebaluazioaren** printzipioetan oinarritzen da, etengabeko hobekuntza eta gobernantza arduratsua bultzatuz.

9.927.718 €
JARDUERA-BOLUMEN
OSOA

Baliabide propioak % 74



Baliabide publikoak
% 26

GIPUZKOA
Foru Aldundia · Diputación Foral



⚠ Urteko kontuak **ALTER CONSULTING**-ek ikuskatu ditu, eta aldeko txostena egin zuen inolako salbuespenik gabe. Caritas Diocesana de San Sebastián-ek bere kudeaketa ekonomikoa kanpo-berrikuspenaren mende jartzen du urtero, **gardentasunarekiko, gobernu onarekiko eta gizarte-konfiantzarekiko** konpromiso gisa.

INBERTSIOA, ARLOKA

Lurralde ekintza	3.158.279 €	% 32
Ettxerik Gabeko Pertsonak	2.243.644 €	% 23
Familiak eta etxebizitza	1.732.368 €	% 17
Ekonomia solidarioa	1.497.684 €	% 15
Komunikazioa, prestakuntza eta boluntariotza ...	148.823 €	% 1
Kudeaketa eta administrazioa		
· Entitateei laguntza	68.440 €	% 1
· Kanpo zerbitzuak eta aholkularitza juridikoa	250.664 €	% 3
· Higiezin kudeaketa	434.786 €	% 4
· Kudeaketa gastuak	393.030 €	% 4

Funtsezko datuak: Caritas Gipuzkoa 2024

9.927.718 €
JARDUERA-BOLUMEN
OSOA



2.270.582 €
(% 22,87) pertsona
eta familientzako
ZUZENeko DIRU-LAGUNTZAK.

14.442
pertsona lagunduta
5.320 familietan

2.411
bazkide eta emaille
Zinez, mundu justuagoa
eraikitzeko konpromisoa
eskertzen diegunei.



866
boluntario
% 65 emakumeak - % 35 gizonak

74
langile soldatapean

- 66 zuzeneko arretan
- 4 kudeaketan
- 4 prestakuntzan, boluntariorian eta animazioan